



## **2016KO ABENDUAREN 19AN BATZARRAK EGIN ZUEN EZOHIKO BILKURAKO AKTA.-**

Tolosako udaletxeko Pleno aretoan egin du bilera 2016ko abenduaren 19an, arratsaldeko 19:00etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

### **BERTARATUAK:**

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua  
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Marixabel Matxinandiarena Arrospide  
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Agirrezabala  
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola  
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona  
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amondarain Tolosa  
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala  
ANOETAKO UDALA (%3,09): Pedro Maria Estanga Lasa  
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre  
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika  
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Amaia Askasibar Agirre  
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Igaro Balda Izagirre  
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala  
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar  
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa  
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbieto  
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro  
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria  
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

### **ETORRI EZ DIRENAK:**

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54)  
ASTEASUKO UDALA (%2,49)  
BALIARRAINGO UDALA (%0,21)  
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)  
GAZTELUKO UDALA (%0,28)  
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76)  
ORENDAINGO UDALA (%0,32)  
OREXAKO UDALA (%0,20)  
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

## **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2016ko azaroaren 28ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20160823.059tik LE20161202.073ra.**
- 3. Hornidura kontratazio-espedita: hondakinen gaikako bilketarako albokargako edukiontzien hornidurarako Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespren proposamena.**
- 4. Tolosaldeko Mankomunitatearen eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketarako espedita onartzeko proposamena.**
- 5. Tolosaldeko Mankomunitatearen Ondasunen Inbentario Orokorra, 2015/12/31ko datan, onarpen proposamena**
- 6. 2017 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena. 2017 ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.**
- 7. 2017 ekitaldirako Idazkari eta Kontuhartzailearen izendapena.**
- 8. Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanue Ugaldek eman dio fede aktari.

Lehendakariak Asteasu, Gaztelu, Ikaztegieta eta Orendaingo ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueto 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

IKAZTEGIETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

ORENDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

### **1. 2016ko azaroaren 28ko Batzarraren Akta onartzea**

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

### **2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20160823.059 zenbakitik LE20161202.073 zenbakira.**

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20160823.059	LE20161004.064	LE20161201.070
LE20160823.060	LE20161021.065	LE20161201.071
LE20160901.060bis	LE20161104.066	LE20161202.072
LE20160915.061	LE20161107.067	LE20161202.073
LE20160919.062	LE20161107.068	
LE20160927.063	LE20161108.069	

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

### **3. Hornidura kontratazio-espeditatea: hondakinen gaikako bilketarako albo-kargako edukiontzien hornidurarako Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboan onespren proposamena.**

2016ko urtean zehar Mankomunitatea osatzen duten hainbat udalerrik hondakinen bilketa sistema aldatzea erabaki dute, atez ateko sistematik, albo-kargako edukiontzi bidezko sistemara. Hori dela eta, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoak paperaren eta ontzi arinen gaikako bilketarako albo-kargako edukiontzi kopurua handitzeko beharra antzeman du. Izan ere, hornikuntza hau ez dago gaur egun UTE Tolosaldearekin izenpetutako kontratuaren oinarrietan barne hartuta.

Hornidura kontratuaren zenbatekoa 58.510 euro gehi BEZ da (guztira 70.797 euro), eta bere ezaugarriak ikusirik, prozedura ireki bidez izapidetuko da espeditatea. Hornikuntza datorren urtean gauzatu den arren, berari dagokion kreditu atxikipena indarrean dagoen 2016ko aurrekontuaren kargura egingo da.

Hala, kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea proposatzen da, prozedura martxan jartzeko. Era berean proposatzen da prozedura honetan hemendik aurrera hartu beharreko erabakietarako Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea.

Ondoren Lehendakariak hartu du hitza: “Dakizuenez, udalerrri batek bilketa sistema aldatzea erabakitzen duenean, gaikako bilketarako edukiontziak Mankomunitateak hornitzen ditu, ez ordea bestelakoak.

Bestetik, baldintza Plegu Teknikoetan ikus daitekeenez, bi motako edukiontziak eskuratuko dira: pedala dutenak eta pedal gabekoak. Tolosako Udalak pedala duten edukiontziak ditu ezarrita, eta berriak ere berdinarak izatea eskatu du. Hauek garestiagoak direnez, Udalak adierazi du bere gain hartuko duela gainprezio hori. Gainerako herrietan pedal gabeak jarriko dira.”

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Papera eta ontzi arinaen gaikako bilketarako albo-kargako edukiontziak hornitzeko kontratua eta esleipen prozesua, prozedura ireki bidez, arautu behar duten Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea.

**BIGARRENA.-** 2016ko ekitaldiko Mankomunitateko Aurrekontuaren kargura, gastu-oriaren 1 625.04.162.10 kontu-sailaren gain, adierazitako kontratazioa gauzatzeko gastua baimentzea, 70.797 euro (%21eko BEZ barne).

**HIRUGARRENA.-** Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Pleguak jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, iragarkia argitara eman ondoko egunetik aurrera.

**LAUGARRENA.-** Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea, papera eta ontzi arinen gaikako bilketarako albo-kargako edukiontziak hornitzeko kontratazio espedienteari dagozkion hurrengo akordioetan erabakiak hartzeko.

#### **4. Tolosaldeko Mankomunitatearen eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketarako espedientea onartzeko proposamena.**

Anoeta, Ibarra eta Zizurkilgo Udalek hondakinak biltzeko sistema aldatzeko eskaera egin dute: zehazki, zabor bilketarako sistema mistoa ezarri nahi dute (edukiontziak eta atez ate). Hori dela eta, Tolosaldeko Mankomunitatearen eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuan, hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu publikoaren kudeaketari buruzkoa, aldaketak egiteko beharra ikusi da.

Mankomunitateko teknikariak egindako txosten tekniko eta ekonomikoaren arabera, aldaketa hau egiterakoan, egungo medio materialak (kamioiak, edukiontziak...), zerbitzuen bideragarritasuna eta berrantolaketa hartu dira kontuan, baita herrien arteko ezaugarri amankomunak ere, beti ere zerbitzua ahalik eta gehien optimizatu eta gaikako bilketaren emaitzak mantendu edota areagotzeko asmoz.

Zabor bilketa zerbitzuaren aldaketa honek, UTE Tolosaldearekin izenpetutako kontratuan koste ekonomikoaren aldaketa eragingo du. Hala, zerbitzu berriaren kostua 351.539 eurokoa da, eta bertan behera utziko diren zerbitzuena 461.035 eurokoa. Ondorioz, zerbitzuaren kostua 109.496 €/urtean (BEZ barne) murriztuko da.

Azkenik, zabor bilketa sistema berria horrelakoa izango da herri bakoitzean:

Zizurkil eta Anoetako udalerrietan:

- Etxeko eta sortzaile bereziek sortutako papera eta ontzi arinak: itxitura sistemarik gabeko albo-kargako edukiontzien bidez.
- Organikoa eta errefusa: atez ateko bilketa sistema bidez.
- Komertzioetako kartoia: atez ateko bilketa sistema bidez.
- Lurrean egon daitezkeen hondakinen bilketa: astean behin Zizurkilan.

Ibarrako udalerrian:

- Etxeko papera eta ontzi arinak: itxitura sistemarik gabeko albo-kargako edukiontzi bidez.
- Etxeko organikoa eta errefusa: itxitura sistema elektronikoa duen albo-kargako edukiontzi bidez.
- Lurrean egon daitezkeen hondakinen bilketa.
- Sortzaile berezien organikoa, errefusa eta kartoia: atez ate.
- Sortzaile berezien ontzi arinak: kalean jarritako albo-kargako edukiontzi bidez.”

Jarraian Lehendakariak hartu du hitza, eta honela adierazi du: “Kontratuan egingo diren aldaketa guzti hauek aldeztu aurretik landuta daude, bai UTE Tolosaldearekin eta baita udalerriekin ere. Hala, UTEari 5 eguneko epea eman zaio espedienteaz aztertzeko eta egoki deritzon alegazio eta dokumentuak aurkezteko. Epe hori igaro ostean ezer aurkeztu ez duenez, Mankomunitatearen proposamena ontzat ematen dutela ulertzen da.

Hala bada, kontratuaren aldaketarako espediente hau onartzen bada, eta behin albo-kargako edukiontziak eskuratuta, sistema berri hau datorren urteko otsaila edo martxoa inguruan martxan jartzea aurreikusten da.

Gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu publikoko kudeaketa-kontratuaren aldaketa-espedienteaz onartzea, Anoeta, Ibarra eta Zizurkilgo Udalen eskariaren arabera.

**BIGARRENA.-** UTE TOLOSALDEAREkin izenpetutako kontratua aldatzea, txosten tekniko eta ekonomikoaren arabera, non aldaketaren baldintzak jasotzen diren. Kontratu honen parte bezala proposamena erabartzen da.

**HIRUGARRENA.-** Kontratuaren aldaketak indarrean sartzea bilketa sistema berriak ezartzen direnetik aurrera.

**LAUGARRENA.-** Gaur egun indarrean dagoen kontratuaren baldintzak mantentzea, aldaketa hauek indarrean jarri bitartean.

**BOSTGARRENA.-** Aldaketaren ondoriozko gastu murrizpena 2017ko Aurrekontu Orokorreko Proposamenean kontuan hartzea.

**SEIGARRENA.-** Kontratuaren amaiera jatorrizkoarena izango dela adieraztea.

**ZAZPIGARRENA.-** Lehendakariari eskumena ematea xehetasunezko aldaketak egiteko, aldaketa hau behin betiko onartzeko eta kontratua gauzatzeko, beti ere Batzarrari erabaki hauen berri emanez.

**5. Tolosaldeko Mankomunitatearen Ondasunen Inbentario Orokorra, 2015/12/31ko datan, onarpen proposamena.**

Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, tokiko erakunde guztiek osatu behar dute bere ondasun eta eskubideen inbentario orokorra. Hori dela eta, indarrean dagoen legediari jarraiki, Tolosaldeko Mankomunitateko Inbentario Orokorra osatzeko dagokion prozedura jarraitu eta espedientea izapidetu da.

Kontuhartzailearen txostenaren arabera, 2015eko abenduaren 31n osatutako Tolosaldeko Mankomunitatearen inbentario orokorraren balioa 1.896.621,36 eurokoa da guztira, eta bere Kontabilitate Balio Garbia (amortizazioak barne) 1.658.637,93 eurokoa.

Txosten hau eta gainerako guztiak, espedientean barneratzen dira.

Bozketa egin ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** 2015eko abenduaren 31ko datan osaturiko Tolosaldeko Mankomunitatearen Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra onartzea, zeinaren atalkako xehetasuna honakoa den:

<b>KATEGORIA</b>	<b>KOSTU HISTORIKOA (€)</b>	<b>KONTABILITATE BALIO GARBIA (€)</b>
Higiezinak	1.354.345,89	1.251.684,65
Ibilgailuak	132.979,00	123.556,73
Altzariak	409.296,47	283.396,55
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.896.621,36</b>	<b>1.658.637,93</b>

**BIGARRENA.-** Inbentarioaren kopia oso bat Estatuko eta Erkidegoko Administrazioei bidaltzea.

**6. 2017 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena. 2017 ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.**

Kontuhartzaileak hartu du hitza, 2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorraren espedientea azaltzeko: “Aurrekontua onartzeko prozedurari dagokionez, behin Batzarrak onartuta, iragarkia GAOn argitaratu eta aurrekontuak jendaurrean egon behar du 15 egunez, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik ez balego, aurrekontua behin betiko onartua geratuko litzateke.

2017rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko arauari dagokionez (2016ko azaroaren 15eko GAOn argitaratua), Tolosaldeko Mankomunitatearen 2017rako aurrekontu proposamenak betetzen ditu aurrekontu egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua (ez baitu inolako zorrik) eta baita gastuaren araua ere, 2016 eta 2017 ekitaldien arteko gastu konputagarriaren bariazioa %1,9koa delako, hau da, 2017rako ezarritako helburuaren azpitik (%2,2).”

---

19:15etan Tolosako Udaletako ordezkaria bertaratu da.

---

2017ko aurrekontuaren gastu eta sarrerei buruz, orekatuta daude, ondorengo taulan jasotzen den moduan:

	<b>SARRERAK</b>	
<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Euroak</i>
III	Tasak eta bestelako sarrerak	1.198.100,00
IV	Transferentzia arruntak	4.584.210,00
V	Ondare sarrerak	300,00
	<b>Guztira sarrerak</b>	<b>5.782.610,00</b>

	<b>GASTUAK</b>	
<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Euroak</i>
I	Pertsonal gastuak	110.850,00
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	5.594.260,00
III	Finantza gastuak	100,00
IV	Transferentzia arruntak	2.400,00
VI	Inbertsio errealak	75.000,00
	<b>Guztira gastuak</b>	<b>5.782.610,00</b>

2017ko ekitaldirako aurrekontu proposamen honek, 2016ko hasierako aurrekontuarekiko %0,87ko igoera du.”

Ondoren, Lehendakariak, 2017ko aurrekontuaren ezaugarri adierazgarrienak eta aurreko ekitaldikoarekiko ezberdintasun nagusiak azaldu ditu.

**Sarrerren atala:** ez dago aldaketarik, finantza-iturri nagusiak mantentzen direlarik:

- Udal ekarpenak %77,96 (IV. Kap.). Ekarpene hauek honako irizpidea jarraituz kalkulatu dira: batetik, zati finko bat, udalerriz guztientzat amankomunak diren gastuei aurre egiteko, hau da, bilketa sistema eta egiturazko gastuak (azken hauek biztanleko banatzen direlarik), eta bestetik, zati aldakorra, udal bakoitzak jasotzen dituen zerbitzuen kostuetan oinarrituta.
- Puntu Berdeko bilketaetik Ecoembesen konpentsazioak %14,35 (III. Kap.)

**Gastuen atala:** hauek dira ezaugarri azpimarragarrienak:

- Pertsonal gastuak (1.kap.): Plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda berdina mantentzen dira. 2016ko aurrekontuarekiko %1eko igoera barneratu da.
- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan (2.kap.): hauek dira ezaugarri nagusiak:
  - Konpostajearen ezarpenerako partidaren gutxipena: azken urtetan 4 fasetan egin da konpostajearen ezarpena, komunikazio kanpaina indartsuen bidez. Gaur egun dauden inplementazio berriak oso urriak direnez, aurten kanpainarik ez egitea proposatzen da, eta soilik banakako eskaera horiei erantzuna ematea.
  - Karakterizazioak egiteko partidaren sorrera: aurrekoaren ordeztu, orain garrantzia eman nahi zaio hondakinen gaikako bilketan jasotzen den zaborraren kalitatea aztertzeari (organiko eta errefusa frakzioetan batez ere), eta horren jarraipena egin nahi da. Izan ere, baliteke etorkizun batean datu hauek ere fiskalizazio orrian barneratzea (hori aurrerago eztabaidatu beharko da).
  - Albo-kargako kamioiaren alokairua: 2017rako partida mantendu egin da. Izan ere, albo-kargako kamioiaren hornikuntzarako lizitazioan izandako gora-behera batzuk direla eta, erosketa prozesua luzatu egin da, eta ondorioz, baita bitarteko kamioiaren alokairu zerbitzua ere.
  - Errefusa eta materia organikoaren tratamendu-gastua: oraindik ez da jakin Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak 2017rako tarifak aldatuko dituen ala ez, datorren abenduaren 27ko Batzarrean erabakiko baita. Baina itxura batean, Foru Ogasunak adierazi du Kontsurtzioak Mankomunitateei fakturatu dizkien kontzeptuengatik BEZak kengarria izan behar duela. Hala, baliteke gaur egun ordaintzen den tarifa, BEZ barne, 2017/01/01etik aurrera BEZ kanpo izatea. Beraz, funtsean, honek prezio igoera bat dakar.



- Inbertsio errealak (6.kap.): 2017an egingo diren inbertsio nagusiak hauek dira:
  - Hondakin arriskutsuentzat birziklapen etxolak: 54.000 euro.  
2016an guztira 4 etxola ezarri dira. 2017ko inbertsio honekin etxola gehiago eskuratzea proposatzen da, falta den herrietan jartzeko.
  - Zabor bilketarako edukiontziak: 18.000 euro.  
2016an zehar albo-kargako edukiontzi kopuru handia eskuratu denez, 2017ko aurrekontuan kopuru txikiagoa aurreikusi da kontzeptu honetarako.

Kontuhartzaileak gaineratu du aurrekontuan eman den beste aldaketa nabarmen bat partida kopuruaren gehikuntza izan dela (nahiz eta guztizko zenbatekoa antzekoa izan) Horren helburua sarrera eta gastuei buruzko xehetasun handiagoa lortzea da, etorkizunera begira informazio gehiago izateko.

Azkenik, 2017ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauan 2 aldaketa proposatzen dira:

1. Lehendakariari ematen zaio eskumena urtean zehar eta metatuta, aurrekontuaren %5a baino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarriak onartzeko.
2. Kreditu Globala ez da sartu gastuen aurrekontuan.

Alegiako Udaleko ordezkariak: “Zergatik proposatzen dira bi aldaketa hauek?”

Kontuhartzaileak: “Gastuen aurrekontuan Kreditu Globala partida bezala sartzek, Gastuaren Araua betetzea oztopatzen du. Horregatik, horren ordez, eta eragina antzekoa denez, Lehendakariari eskumena ematen zaio urtean zehar eta metatuta, aurrekontuaren %5a baino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarriak onartzeko. Azken finean eragina berdina da.”

Ondoren, agertutako guztiak ados daudenez aurkeztutako espedientearekin eta emandako azalpenekin, Batzarrak, ahobatez,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosaldeko Mankomunitateko 2017ko ekitaldirako aurrekontu espedientea eta dokumentu osagarriak hasierako izaeraz onartzea.

**BIGARRENA.-** Tolosaldeko Mankomunitateko 2017ko ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda hasierako izaeraz onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Aurrekontua, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Tolosaldeko Mankomunitateko iragarki taulan ipiniko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, Aurrekontua behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

## **7. 2017 ekitaldirako Idazkari eta Kontuhartzailearen izendapena.**

---

19:25 direnean, Jose Luis Unanue Ugalde eta Maider Amado Mendizabal, Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkaria eta Kontuhartzailea, hurrenez hurren, Batzarretik atera dira

---

Lehendakariak batzarkideei jakitera ematen die Idazkari eta Kontuhartzaileen karguak urtero berritzen direla.

Azken urteotan Tolosako Udaleko idazkari den Jose Luis Unanue Ugaldek egin ditu idazkari lanak, eta proposatzen du honek berak jarraitzea funtzio horiek betetzen.

Kontuhartzaileari dagokionez, aurreko legealdi bukaeran Mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen lanpostu hau era finko batean betetzea, urtero aldatzen ibili beharrean. Horrez gain, egoera hau argitzeko txosten eskaera bat egin zitzaion Eusko Jaurlaritzari, bere eskumena delako, baina gaur gaurkoz ez dugu erantzunik jaso. Hala bada, joan den uztailetik Villabonako Udaleko kontuhartzaile den Maider Amado Mendizabalek betetzen du funtzio hori, eta, kasu honetan ere, kontuhartzailetza lanak betetzen honek berak jarraitzea proposatzen du, gaia argitu bitartean behinik behin.

Beraz, batzarkideei proposatzen zaie, Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkari lanak, Jose Luis Unanue Ugalde, Tolosako Idazkariak egitea eta Kontuhartzailearen gaia argitu bitartean, Kontuhartzaile lanak, Maider Amado Mendizabal, Villabonako Kontuhartzaileak egitea.

Ondoren azaldu die, 2017ko ekitaldiko aurrekontuan Idazkari eta Kontuhartzaile gastua isladatzen dela, 227.11.162.20 2017 partidan, 23.260,00 € ko diru kopuruarekin hain zuzen ere, eta kasu honetan gastu hauek Tolosako eta Villabonako Udaletxeari ordainduko zaizkiela, hau da, bakoitzari kopuru horren erdia.

Gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez, ondorengo

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Jose Luis Unanue Ugalde, Tolosako Udaleko idazkaria, Tolosaldeko Mankomunitateko idazkaria izendatzea 2017 urterako.

**BIGARRENA.-** Maider Amado Mendizabal, Villabonako Udaleko Kontuhartzailea, Tolosaldeko Mankomunitateko kontuhartzaile izendatzea 2017 urterako, Kontuhartzailearen gaia argitu bitartean.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

---

19:27tan, Jose Luis Unanue Ugalde eta Maider Amado Mendizabal, Mankomunitateko Idazkaria eta Kontuhartzailea, hurrenez hurren, Batzarrera sartu dira berriro.

---

## **8. Galde-erreguak.**

Tolosako Udaleko ordezkariak hartu du hitza: “Gardentasunaren gaiari buruz hitz egin nahi nuke, gai garrantzitsua eta lehentasunezkoa iruditzen baitzait. Alde batetik, Mankomunitateko webgunean ez dago ez arlo ekonomikoko daturik (aurrekontua, kontu orokorra...) ez eta Batzarrean edota Batzorde Iraunkorrean hartzen diren erabaki eta akordioei buruzko informaziorik ere (aktak). Mankomunitatea eakunde publiko bat denez, eta informazio guzti hau publikoa izanik, herritarrentzat eskuragarri eta egunean egon beharko luke, eta horregatik iruditzen zait lehentasuna eman behar geniokeela gai honi.

Bestetik, eta gardentasunaren hari berean, zerbitzu juridikoei buruzko informazioa ematea nahi nuke, xehetasunekin: zein zerbitzu ditugun kontratatuta, zein kontzeptugatik, eta zer ordaintzen ari garen, hau da, zenbat gastatu den orain arte kontzeptu honegatik.”

Lehendakariak hartu du hitza eta honela erantzun dio: “Zerbitzu juridikoei buruzko informazio hori Batzarrak egiten duen hurrengo bilerarako ekarriko dugu. Guztiok dakizue gutxi gora-behera zein prozedura dauden irekita, horien erabakiak hemen hartu direlako. Baina halere azalduko dugu zehazki zein diren prozedura horiek, zein kontzeptugatik eta zer ordaindu den bakoitzagatik 2016ko ekitaldian zehar. Era berean, 2017rako ere partida bat sortu da aurrekontuan, arlo honetan sortzen diren gastuetarako, eta hauek ere sortu ahala azalduko ditugu.

Bestetik, webgunearen eguneratzeari buruz, arrazoi osoa duzu. Aurreko legealdian komunikazio zerbitzu bat geneukan kontratatuta, eta legealdi berria hasi zenean, zerbitzu hau bertan behera utzi zen, eta ordutik webgunea eguneratu gabe dago. Teknikariarekin hitz egin dut gai honi buruz, eta komunikazio zerbitzua berriro kontratatzea pentsatzen ari gara, webgunea eguneratzeko eta kudeaketa jarraia emateko. Honekin batera, gardentasunaren gaiari loturik, dagozkion datu ekonomikoak eta hartutako akordioak argitaratuko lirarteke, herritarrek bertan eskuragarri izan ditzaten.”

### **\*Gai zerrendatik kanpo: Errauskailuaren aurkako Aiztondo plataformaren deialdia**

Gipuzkoako Errauskailuaren aurkako Aiztondo plataformak eskaera egin du Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarraren bilkura aprobetxatuz, batzarkideei zuzentzeko. Batzarrak eskaera onartu du eta beraien adierazpenak egiteko aukera eman die.

Arratsaldeko 19:30ak direnean, Aiztondo Plataformakoak sartu dira eta informazio-orri bat banatu dute bertaratutako guztien artean. Jarraian, orri horretan adierazten dena azaldu dute, batzarkideei zuzenduz: “Udalek daukazue hondakinak kudeatzeko eskumen eta ardura, eta horregatik zuei zuzentzen gataizkizue. Jakin badakigu errauskailuak zalantza handiak sortzen dituela, bai behintzat osasun arloan, eta baita ekonomia arloan ere, gure iritziz ez baita aukerarik egokiena. Eta horiez gain, beste hainbat arrazoi dira diru publikoa egoki erabiliko den ala ez zalantzan jartzen dutenak. Gure sentipena da herritarrok ez dugula jasotzen informaziorik erabakiak hartzen dituztenengandik, eta, aldiz, gu gara horren ondorioak jasaten ditugunak.

Hala bada, proiektu honekin zilegi ez den zor baten aurrean ikusiko dute beren burua Udalek. Eta Udalen ordezkari zareten heinean, hausnarketa bat egitera gonbidatu nahi zaituztegu: izan dezazuela kontzientzia eta ardura, zor hori zuen Udaletako aurrekontuaren barne ikusten duzuenean, jakiteko nola kudeatuko duzuen eta zein ondorio legal izango dituen. Eta hemendik urte batzuetara epaiketa bat iritsiko balitz? Izan zaituzten jakitun zein ardura politiko eta bereziki legal dituzuen. Izan ere, legala al da egin behar dutena? Ziur aski bai. Etikoa? Inondik inora ere ez. Plataforman parte hartzen dugun osasuneko profesionalok gutxienez ikerketa bat egitea eskatzen dugu. Baina ez dute egiten, horretarako urteak eta dirua behar direlako. Baina jakinik gauzak beste modu batera egin daitezkeela, gutxienez hausnarketa bat egitea eskatzen dizuegu, pertsona bezala noski, baina bereziki arduradun politiko bezala.

Horregatik,, datorren abenduaren 27an, eguerdiko 12:00etan Donostian Foru Aldundiaren Atarian egingo den protestan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Eta besterik gabe, mila esker aukera hau emateagatik.”

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 19:45ak direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**